



**1.– Eskatzaile guztiak aurkeztu beharko dute, horretarako adierazitako epean, ikaslearen nortasuna eta adina egiaztatuko dituen dokumentu bat.**

- NAN edo AIZ indarrean. Izapidea on-line egiten bada eta nortasun-datuak konsultatzeko zerbitzuak dokumentu hori baliozkotzen badu, ez da beharrezkoa izango agiri hori aurkeztea.
- Eskaera aurkezteko ulean ikaslea adin txikikoa bada eta ez badago legez emantzipatuta, eskaera aitak, amak edo ikaslearen tutorea den pertsona edo erakundeak aurkeztu behar du. Kasu horretan, familia-liburua edo eskaera aurkezten duena ikaslearen legezko ordezkaria dela egiaztatzeko dokumentua ere aurkeztu beharko da.

**2.– Eskaeran desgaitasunen bat duten pertsonentzat edo goi-mailako edo errendimendu handiko kirolarientzat erreserbatutako plazetan onartua izatea aukeratu dutenek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte, aurreko atalean aipatutako nortasun-agiriaz gain:**

- % 33ko desgaitasuna edo handiagoa izateagatiko erreserba:** kasuko lurralde-historikoko foru-aldundiko gizarte-zerbitzuetako departamentuak edo administrazio publiko eskudunaren organo balioakideak emandako ziurtagiria.
- EAEko HLPE erregistroan inskribatuta egoteagatiko erreserbaren kasuan,** ez da erreserba horretarako ziurtagiririk aurkeztu behar.
- Goi-mailako edo errendimendu handiko kirolari izateagatiko erreserba:** adierazpen ofizial bat, baldintza hori egiaztatzen duen kasu bakoitzean aplikatzekoa den araudiaren arabera.

**3.– 1. apartatuan adierazitakoaz gain, honako dokumentazio hau ere aurkeztuko da.**

**a) Ziurtagiri profesionalarentzako (C Graduak).**

- **Sarbidea titulazio akademiko ofizial bat bada:** sartzeko alegatutako titulua edo titulua eskuratzeko tasa ordaindu izanaren egiaztagiria. Ikasketak bukatu diren data dela-eta ezin bada bi dokumentu horietatik bat ere aurkeztu, baldintza hori egiaztatzeko, tituluari dagokion historia akademikoaren ziurtagiria aurkeztu ahal izango da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik edo Batxilergotik egiten bada sarbidea; Lanbide Heziketako titulu batetik egiten bada, ordea, ziurtagiri akademiko ofizial bat aurkez daiteke.
- **Sarbidea profesionaltasun-ziurtagiri bat bada,** ziurtagiri hori lortu dela egiaztatzen duen agiria.
- **Sarbidea egin beharreko eskaintzan jasotako gaitasun-ziurtagiria bada,** hura lortu dela egiaztatzen duen agiria.
- **Heziketa-zikloetara sartzeko kurtsoa gainditzea baldin bada sarbidea:** kurtsoaren amaierako notaren ziurtagiri ofiziala.
- **Sarbidea heziketa-zikloetara sartzeko proba edo 25 urtetik gorakoak edo 45 urtekoak unibertsitatean sartzeko proba gainditu izana bada:** probaren amaierako notaren ziurtagiri ofiziala (ez da beharrezkoa izango heziketa-zikloetara sartzeko probaren ziurtagiria aurkeztea, baldin eta EAEko 2013-2014 ikasturteko deialdian edo hurrengoetan egin eta gainditu bada. Hala ere, proba hori beste edozein autonomia-erkidegotan gainditu dutenek, edo EAEn baina aurreko ikasturteetan gainditu dutenek ziurtagiria aurkeztu beharko dute irakaskuntza-modalitateari dagokion egutegian zehaztutako epean).
- **Urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuaren IV. eranskinaren arabera beharrezkoak diren funtsezko gaitasunak egiaztatzeko,** gaitasun horiek dagokion dokumentuaren bidez egiaztatzea.

**b) Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloetarako, hasierako lanbide-heziketan hezkuntza indartzeko ibilbide ohikorako eta oinarrizko mailako eta maila ertaineko ibilbide integratuentzako:**

- **EAEko ikastetxe batean matrikulatutako ikasleentzat:** Jatorrizko ikastetxeak Kontseilu Orientatzaileari buruzko informazioa bete behar du Eusko Jaurlaritzaren "Kalifikazioak eta bertaratze-faltak" aplikazioan)
- **EAEtik KANPOKO ikastetxe batean matrikulatutako ikasleentzat:**
  - Ikasleak **Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo bat egin** dezala proposatzen duen irakasleen orientazio-aholkua.
  - **Azken maila egin den ikastetxeko ikasketa-ziurtagiria.**

Espainiako hezkuntza-sisteman eskolatuta egon ez diren 15 eta 18 urte bitarteko ikasleek ez dute dokumentazio hori aurkeztu beharko.

**c) Hezkuntza-premia bereziak dituztenei zuzenduta dauden eta 3 urterako prestakuntza-ibilbidea duten Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloetarako:**

- Ikasleak **3 urterako prestakuntza-ibilbidea duen Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo bat egin** dezala proposatzen duen irakasleen orientazio-aholkua.
- **Azken maila egin den ikastetxeko ikasketa-ziurtagiria,** baldin eta ikasketak **EAEtik kanpo egin badira.**



d) 16 urte edo gehiago dituzten ikasleei zuzenduta dauden 3 urterako prestakuntza-ibilbidea duten Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloetarako ez da inolako dokumentazio akademikorik aurkeztuko.

e) Erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloetarako: zer sarbide aukeratu den. Horretarako, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

– **Sarbidea titulazio akademiko ofizial bat bada:** sartzeko alegatutako titulua edo titulua eskuratzeko tasa ordaindu izanaren egiaztatzea. Ikasketak bukatu diren data dela eta ezin bada bi dokumentu horietatik bat ere aurkeztu, baldintza hori egiaztatzeko, tituluari dagokion historia akademikoaren ziurtagiria aurkeztu ahal izango da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik edo Batxilergotik egiten bada sarbidea; Lanbide Heziketako titulu batetik egiten bada, ordea, ziurtagiri akademiko ofizial bat aurkez daiteke.

– **Sarbidea heziketa-zikloetan sartutako C mailako prestakuntza-eskaintza bat gainditu izana bada:** lortu izana egiaztatzen duen dokumentua.

– **Heziketa-zikloetara sartzeko kurtsoa gainditzea baldin bada sarbidea:** kurtsoaren amaierako notaren ziurtagiri ofiziala.

– **Sarbidea heziketa-zikloetara sartzeko proba edo 25 urtetik gorakoak edo 45 urtekoak unibertsitatean sartzeko proba gainditu izana bada:** probaren amaierako notaren ziurtagiri ofiziala (ez da beharrezkoa izango heziketa-zikloetara sartzeko probaren ziurtagiria aurkeztea, baldin eta EAEko 2013-2014 ikasturteko deialdian edo hurrengoetan egin eta gainditu bada. Hala ere, proba hori beste edozein autonomia-erkidegotan gainditu dutenek, edo EAEn baina aurreko ikasturteetan gainditu dutenek ziurtagiria aurkeztu beharko dute irakaskuntza-modalitateari dagokion egutegian zehaztutako epean).

– **Sarbidea irakasgaiak edo gaiak gainditzea bada:** ziurtagiri akademiko ofiziala.

– Ikasketak **atzerrian** egin dituzten eta **itulazioa homologatzeke duten ikasleen kasuan**, Baldintzapean Izena emateko Txartela eta dagokion tasa ordaindu izanaren egiaztatzea.

f) **Especializazio-kurtsoak:** sarbidea kurtso bakoitza egiteko gaitasuna ematen duen titulua denez, aurkeztu beharreko dokumentazioa da kurtsoa sartzeko alegatutako titulua edo titulu hori jaukitzeko tasa ordaindu izanaren agiria. Ikasketak bukatutako datagatik bi dokumentu horietako bat ere aurkeztu ezin bada, titulua lortu dela tituluari dagokion espediente akademikoa aurkeztuta egiaztatzea beharko da.

Egiaztatzea beharreko **esperientziaren kasuan**, esperientzia hori egiaztatzen duen agiria, lan-bizitza, lan-kontratua edo agiri baliokidea aurkeztu beharko da.

g) **Araubide birtualeko irakaskuntzetarako**, ikasle berriek EAEn errolatuta daudela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute, bai eta prestakuntza-moduluak gainditu dituztela egiaztatzen duen ziurtagiri akademiko ofiziala eta/edo gaitasun atala egiaztatzearekin gaitasunak egiaztatzea izanaren ziurtagiria ere.

4.– Eskatutako irakaskuntzari dagokion eranskinean jasotako lehentasun-irizpideei jarraikiz ikaslearen eskubide izan daitezkeen erreserbak, lehentasunak edo hurrenkeran lehenago joateko aukera erabiltzeko, horretarako eskubidea duela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, salbu eta Administrazioak aurretiaz badu informazio hori.

5.– Eskatzaileak irakaskuntzetara sartzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatuta geratzen den guztietan, plaza erreserbatzeko, lehentasuna izateko edo hurrenkeran lehenago joateko eskubidea ematen duen dokumentuetako bat aurkezten ez bada, ikasleak izan zezakeen hurrenkera galduko du. Egoera horietan, esleipena kupo orokorrean dagokion sarbideetik egingo da.